



08

KULTURAREN ETA EUSKARAREN KUDEAKETA

>>>

EUSKARAREN SUSTAPENA KULTURAREN EUSKAL PLANETIK

Josean Urdangarin

Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Euskal Planaren koordinatzailea

Helbide elektronikoa: lynx@ej-gv.es

"Indartsua eta ahularen artean, askatasunak zapaldu egiten du eta legeak aske-ago egin". (Lacordaire)

Artikulu hau idazterakoan hiru izan dira oinarritzko heldulekuak, lehenik Kulturaren Euskal Planean agertzen diren kulturari buruzko oinarritzko kontzeptuak laburbiltzea; bigarren, planaren egiteko eta ildo nagusien testuinguruan euskarak eta euskaraz egiten den kulturak egun duen egoera aztertzea; hirugarren, etorkizunari begira euskarazko kultura politikak sendo garatzeko bidean ager daitezkeen faktore kritikoak azpimarraztea. Planarekin berarekin egin zen bezala, artikulu hau ere artikulu ireki moduan doa, ekarpenak jaso eta hobetze bideetan barna abiatzeko.

1. KULTURAREN EUSKAL PLANAREN OINARRIZKO KONTZEPTUAK

"Herri txikia gara, kultur sormenaren aldeko erronka garbia egiterakoan ez genuke zalantzarik izan behar" (Kulturaren Euskal Plana).

Kulturaren Euskal Kontseiluak 2004ean onartu zuen Kulturaren Euskal Plana (KEP zenbaitetan), 2003an zehar egindako gogoeta, bilera eta diagnostikoetan oinarrituta. Kulturaren Euskal Kontseilua¹ kulturaren eragile

publiko eta pribatuen topalekua da bere sorreratik, eta bere helburu nagusia euskal kultur eremua egituratzea da, gero eta globalizatuagoa den ingurunean. Helburu nagusi hau lortzearen koordinazioaren sustapenean egiten du lana kontseilu honek, hiru lerro gidarirekin: a) koordinazio bertikala sustatzea kultur gaietan eskudun direnen artean (Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak); b) koordinazio horizontala sustatzea kultur jardueran gehien eragiten duten Nafarroako eta Iparraldeko erakunde publiko eta pribatuekin; c) koordinazioa sustatzea kulturaren sistema eta sektoreetako gizarte eragileekin.

Kulturaren Euskal Plana² partaidetzan oinarritu da hasieratik, eragile publiko eta pribatuak lantaldeetan bilduz, sentsibiltate desberdinen arteko trukaketak bilatu nahian eta ezagutza partekatuz. Planak 2015a du lehen helmuga modura, lau urteroko tarteak bereiziz eta bi urteroko ebaluazio guneak ezarritz. 2009aren hasieran egingo da lehen lau urtekoaren balantzea.

1.1 Kultura eta euskal kultura zentzu zabalean.

KEPean egiten den hurbilpenetik, **kulturaren definizio zabala** era honekin dator: ingurunea eta gizarte harremanak bere esparru sinboliko eta komunikatiboetan nahiz balioen alorrean kudeatzeko ematen den erantzun multzoa da kultura, gizarte mailako elkarrekin nahiz onarpena edo talde bateko kide izatearen sentimendua ahalbidetzen duena hain zuzen ere.

Gizartearen nerbio-ehuna da kultura, baina gizarteak moldatzen ditu kulturaren moldeak, hiru eginkizun nagusirekin: (a) gizarte egituraketa, (b) komunikazio adierazkorra, (c) esanahien sorrera eta ekoizpena komunitate anitz batean. Kultura ez da genetikoki heredatzen, gizatalde berezitu batek komunean dituen erantzun multzoa den heinean, belaunez belau aldatu eta ondorengotzen da ikaskuntzaren bidez, bai bere eduki sinbolikoetan, bai bere balio eta erakunde nagusietan ere.

Bestalde **kultura kontzeptu kontraesankorra ere bada**. Alde batetik, herrialde bateko herritarren artean kultura komuna izateak, elkarren onarpena eta gutxieneko adostasunak garatzeko bidea ematen du auzi komunen inguruan. Bestetik, kulturaren kontzeptua ez da barea ezta neutrala ere, baizik eta gizarte bateko gatazka orokorrek zein kultur eremukoei zeharkatua. Bi gatazka mota horiek kritika eta aurrerabidea bideratzen dute eta positiboak dira, liskarrak suntsitzailerik bihurtzen direneko muga gainditzen ez badute.

Kulturaren alde ekonomikoari so eginez, kultura input produktibotzat ere hartzen da, merkatu garrantzitsua sortzen baitu informazioaren eta ezagutzaren gizaritza. Horrela, kulturaren sorkuntza eta ekoizpen artistikoa eta industrialak gauzatzeko modua, historian zehar metatutako ondareari eta bere balioespenari erantzen zaizkio.

*“Herri txikia gara, kultur sormenaren aldeko erronka garbia egiterakoan ez genuke zalantzarik izan behar”
(Kulturaren Euskal Plana).*

Ingurunea eta gizarte harremanak bere esparru sinboliko eta komunikatiboetan nahiz balioen alorrean kudeatzeko ematen den erantzun multzoa da kultura, gizarte mailako elkarreraginak nahiz onarpena edo talde bateko kide izatearen sentimendua ahalbidetzen duena hain zuzen ere.

Euskal kultura, kultura berezia da, **bi kultura indartsuren artean kokatua**: espainiarra eta frantsesa, bi estatu-nazioren kulturak hain zuzen ere. Zenbait eskualdetan, euskal kultura oso lotuta dago bi kultura handi horiekin, bai kanpoko eraginagatik, bai barruan, euskaldunen kulturaren baitan, duten presentziagatik.

Euskal Kultura hiru ekarpenen emaitza modura hartzen da KEPearen: oinordetzan jasotako kultura nuklearrarena (osagai honetatik historia, hizkuntza, sinboloak, erakundeak, artea, bizimodu motak... jaso ditugu); bereganatutako beste kultura batzuen (osagai honetatik aberastasuna eta beste hizkuntza batzuk datoz); gaur egungo euskaldunen kulturaren emaitzarena (aniztasuna, sintesia eta etengabeko birdefinizioa datoz).

1.2 Kultur eta komunikazio gunea.

Kultur eta komunikazio gunea bezala ulertzen da identitatea eraiki eta erreproduzitzeko eremua, edo talde bateko kide izatearen eta ezberdin izatearen sentimendu orokorrak dituen komunitate baten gizarte harremanak moldatzen direneko esparrua. Gune honek euskarri moduan ardatz hauek ditu: kultur eta hizkuntz ondarea, gutxi edo gehiago komunak diren sinbologia eta auto-balorazio identifikagarriak, erreferentziako instituzionalizazioa, eta produkzio, pertsona arteko eta erakunde mailako harreman sarea. Horrek “gu” bat moldatzen du, “guztiok” moduan ulertuta. Gunearen kontzeptuak, prozesuen, birtualtasunaren eta harremanen baitakoa den heinean, esparru politiko-administratiboak gainditzen ditu, baita lurraldeetakoak ere

Euskal Herria txikia da eta kultur eta informazio mugarik ez dagoen aro honetan, ez litzateke ulergarria izango euskal lurraldearen barruan euskalduna bezalako kultura minoritario —eta, euskararen alorrean minorizatu— batean eragiten duten gai kultural hutsen gainean mugak egotea. Hemen, Euskal Herria, lurralde garapen mailako aldeekin ere, ondarea, artea, kultura eta historia partekatzen dituen entitate historiko kulturala bezala ulertzen da. Pentsatzekoa da erakunde politiko-administratiboek osagai horiek lurralde bakoitzaren ondare gisa babestuko dituztela, baina baita kultur komunitate zabalago baten ondare komun partekatu gisa ere.

Garaiotan, eta gehiago indarra hartuz doan “informazioaren gizarte” honetan, kultur eta komunikazio gunea behar bezala erreproduzitzeko bada, **kultur sistema instituzionalizatu eta iraunkorra eduki behar da**. Egituraketak bakarrik ahalbidetuko du kultur garapen endogeno eta jasangarria, kultura bideratuko duen proiektu edo eredu batez eta tresna egokiak dituen kultur politikak gauzatuz. Sistema horren zati erabakigarriak dira gizarte zibila eta gizarte eragileak.

Miraria da euskal kultura historikoaren zati batek erakundeen sare sendorik gabe bizirik iraun izana, eta kulturaren euskal eremuak aurrera

egin izana. **Gune horrek iraun dezan, eutsiko dioten egiturak edo sistemak sustatu behar dira.** Horien artean garrantzitsuenak honako hauek dira: hezkuntza sistema, sistema politiko autogestionaturen bat, komunikazio sistema eta kultur sistema. Ildo horretatik, euskal gune kulturala de facto onartzea eta eraikitzea, kontraesankorra izan gabe, errealitate bera-
ren alderdi ezberdinak dira: sistema batetik abiatuta kultur proiektu eta jarduera bat eraikitzea, emaitza moduan abiapuntuko gunearen erreprodukzioa, garapena eta aldaketa emango duena.

1.3 Euskal Sistema kulturala.

Euskal sistema kulturala hainbat eremuk edo azpi-sistemak osatzen dute: kultur ondarea, sorkuntza eta adierazpen artistikoa eta kultur industriak.

Eremu horietako bakoitzak berezko esparru, helburu eta jardunbideak ditu, harremanetan dauden arren (denboraren joanarekin, arteen zati bat ondare bihurtzen da, ondarea arteentzako sormen iturri da, eta, azkenik, kultur industrien arteen beharra dute ekoizteko).

Kultur ondareak herri baten memoria historikoa ukitzen du. Inmateriala edo materiala, higiezina edo higigarria izan daiteke. Bere oinarritzko helburua erkidego baten kultur ondarea zaintzea, babestea, zaharbertzea, baloratzea eta hedatzea da. Kultur ondareko zentro edo zerbitzuen bidez kudeatu ohi da (ondare etnografikoa, arkitektonikoa, arkeologikoa, artistikoa, industrial...), eta museo sistemaren, agiritegi sistemaren eta liburutegi sistemaren bidez. Egitura publikoak eta pribatuak dira, zerbitzu publikoa eskaintzeko asmo argia dutenak; erakundeen aldetik laguntza handia jasotzen dute, eta ia beti irabazi asmorik gabekoak dira.

Arteen eremuan helburu nagusia sorrera, ekoizpen eta zabalkunde artistikoa da, hainbat alorretan: literatura, ahozko tradizioa, musika, antzerkia, dantza, ikusizko arteak eta eskulangintza. Arte sorkuntza gizarte ekimenari estuki lotutako ekintza da: artea gizarteko kideek sortzen dute, eta ez administrazioak, azken horri sorkuntza eta zabalkunde posible egingo dituzten baldintzak erraztea bakarrik baitagokio. Arteen produkzio moduak (batik bat artisau lana), objektu, adierazpen, ekimen eta esperientzia artistikoen izaera bereziak (industri produkzio masifikatuaren aldean), eta ikus-entzuleen kopuru mugatu samarrak proiektu artistikoen errentagarritasuna eragozten dute. Oro har, arteak erakunde-
en laguntzarekin eta babesle pribatuekin osatu behar du finantzaketa.

Kultur industrien eremuak ekoizpen modu estandarizatuak (industrialak) ditu, kopuru handietan erreproduzitutako objektuekin edo, potentzialki bederen, jende askorengana iristeko produktuekin; horiek, gainera, merkatuaren arauak lotzen zaizkien enpresek eskaintzen dituzte. Ezaugarri horiek biltzen dituzte argitalpen industriak, fonografiakoak, ikus-entzunezkoak eta multimediakoak. Arlo horietan sartzen dira, hala-
ber, komunikabideak eta Sareko komunikazio moldeak. Bilbe sozial eta

Kultura ez da genetikoki heredatzen, gizatalde berezitu batek komunean dituen erantzun multzoa den heinean, belaunez belaun aldatu eta ondorengotzen da ikaskuntzaren bidez, bai bere eduki sinbolikoetan, bai bere balio eta erakunde nagusietan ere.

Euskal kultura, kultura berezia da, bi kultura indartsuren artean kokatua: espainiarra eta frantsesa, bi estatunazioen kulturak hain zuzen ere. Zenbait eskualdetan, euskal kultura oso lotuta dago bi kultura handi horiekin, bai kanpoko eraginagatik, bai barruan, euskaldunen kulturaren baitan, duten presentziagatik.

ekonomikoan, kultur industriak dira bizitasun, hazkunde, eragin eta inpaktu handiena dutenak.

Kultur politikek kultur eremu handi bakoitzaren balio-kate osoa izan behar dute kontuan.

Balio-katea Ondarean: 1. Heziketa eta ikerketa; 2. Babesa; 3. Zainketa eta zaharberritzea; 4. Balioespena eta hedapena; 5. Kultur kontsumoa

Balio-katea Arteetan eta Kultur Industrietan: 1. Heziketa; 2. Sor-kuntza; 3. Produkzioa; 4. Banaketa; 5. Kultur kontsumoa.

1.4 Kultura eta Euskara.

Euskara euskal kulturaren oinarri nagusietako bat da, euskaldunon berezko hizkuntza izateaz gain, eta, gaztelania eta frantsesarekin batera, historian zehar euskal kultura sortzeko erabili izan den, eta erabiltzen den, tresnetako bat. Euskara eta euskal kultura estuki lotuta daudelarik, **euskarak euskal kulturaren etorkizuna baldintzatzen du**, eta, hizkuntza edozein delarik ere, kultur garapen orokor baten mende dago, euskal kultura sortu, ekoitzi eta zabaltzeko gai guztietan; esan beharrik ez dago, bestalde, euskararen etorkizunak berak, kulturak bere adierazpen guztietan iraun eta indarra har dezan behar duela.

Euskarazko kultur produktuen eskalako ekonomiak oso bestelakoak dira gaztelaniazko edo frantseseko kultur produktuen ekonomie-kiko. Euskarak arreta berezia behar du, eta bere zabalkundean eta telebis-ta, irratia, prentsa edo Internet bezalako komunikabideetan (komunika-zio publikorako hizkuntza), produktuetan (produktu edo kultur zerbitzuko hizkuntza) eta ekoizpen prozesu kulturaletan (laneko hizkuntza), euskararen erabilera sustatu behar da.

Horretarako, **komeni da legearen aldetik laguntzak izatea** (zentzuzko kuota politika batez zerbitzu publikoko komunikabideetan, edo kontzertuen eta zerga pizgarrien bidez) eta hizkuntzaren eta zabalkundea-ren industrietan garapen teknologikoei arreta berezia eskaintzea.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak lehenetsun moduan xedatzen ditu ahalik eta hitzun gehien lortzea eta euskararen gizarte erabilera areagotzea. Kulturaren Euskal Planean aurreikusitako jarduera-ildoak eta helburuak euskararen egoera hobetzeko baliagarriak izatea dute xede (bai corpusari bai estatusari begira). Izan ere, **euskararen egoera hobetzea eta hizkuntzaren erabilera normaltzea** euskal kulturaren gaineko jarduera ardatzen funtsezko elementuak dira, hurrengo atalean ikusiko dugunez.

2. KULTURGINTZAN EUSKARAREN EREMUA SUSTATZEKO NEURRIEN EGUNGO EGOERA.

Bigarren atal honek bost puntu hartzen ditu: kulturaren Euskal Planaren helburuak; nortasunaren kontzeptua; 2007-2008rako Planaren proiektu

traktoreak; 2005-2006an egindakoaren betetze-maila ardazka eta ,a azkenik, euskararen ardatz estrategikoaren egoera.

2.1. Planaren egitekoa, erronka nagusia eta metodologia: ezagutzaren eta kulturaren hamarraldia.

KEPren oinarritzko egitekoa euskal kultura, euskaldunon kultura, XXI. mendearen kultur erronka handiei ekiteko egoeran jartzea da. Gainera kulturak duen garrantzi sozialaren kontzientzia hartu behar da. Kulturari babes, sormena, ekoizpena eta zabalkundearen bidez duen balioa emateak ondorio bi ditu: batetik, gure gizartearen integrazio, egokitze eta garapena ahalbidezea eta, bestetik, kulturak gure garaiotan duen potentzial ekonomikoa azalaraztea.

Eginkizun kolektiboa da hori, euskal gizartearen, gizarte zibilaren, kultur eragileen eta erakunde publiko eta pribatu guztien partaidetza gabe aurre ezin egin zaiona. Apustu horrek lehentasunezko bost norabidetan abiatzea eskatzen du, kulturaren esku zabalduaren bosta atzamarraren bidetik. Norabideok honako hauek dira:

- sorreraren eta produkzioaren nagusitasuna (edukiak)
- kultur integrazioarako ahalegina
- nortasunaren sendotzea
- modernizazioa eta
- kanpo proiektzioa

Horrek, halaber, esan nahi du arlo publikoak tira egin behar duela sistema osotik, hain zuzen bere burua minorizatua duen herrialde batean, bere nortasuna eraikitzeke kulturaren ekonomia bat eraikitzera jo behar du, eta ekonomia hau baliagarria izan behar da herrialde berari begira eta beste herrialdeei begira (eskala-ekonomia).

EAEko Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien kulturarako aurrekontuek —udalen gastu publikoa kontatzeke—ezin dute hazkunde begetatibo hutsa izan, egungo erronken mailan egongo badira, baizik eta sostengu zabalaz gabea eta denboran iraunkorra behar dute. Honekin batera, beste apustu erabakigarria erakundearen arteko koordinazio iraunkorra da, sinergia eta eraginkortasuna lortze aldera, eta baita neurri sorta zabal bat aplikatzea ere, dirulaguntza eredu tradizionaletik urrunago heldu eta kultur eremuan ondorio biderkatzaileak izan ditzaketen beste eremu batzuetako esperientziak (finantzaketa politika, zerga eta industri pizgarriak...) baliatzeko.

Metodologikoki Planak egun ondoko taldeek biltzen ditu: Kulturaren Euskal Kontseiluan, Osokoa urtean birritan biltzen da, Erakundearten Batzordea eta Mahai Teknikoa hilero biltzen dira.

Lantalde sektorial eta zeharkakoen kasuan: lantalde hauetan sektoreak eta administrazioak daude elkarlanean, bere osotasunean urtean birri-

Garaiotan, eta gehiago indarra hartuz doan "informazioaren gizarte" honetan, kultur eta komunikazio gunea behar bezala erreproduzitu behar bada, kultur sistema instituzionalizatu eta iraunkorra eduki behar da.

*Euskara eta euskal
kultura estuki lotuta
daudelarik, euskarak
euskal kulturaren
etorkizuna baldintzatzen
du, eta, hizkuntza edozein
delarik ere, kultur
garapen orokor baten
mende dago, euskal
kultura sortu, ekoitzi eta
zabaltzeko gai guztietan;
esan beharrik ez dago,
bestalde, euskararen
etorkizunak berak,
kulturak bere adierazpen
guztietan iraun eta
indarra har dezan
behar duela.*

tan biltzen dira gutxienez, baina bakoitzak bere mahai operatiboa du urtean zehar ekintza-planak garatzeko. Egun martxan dauden lantaldeak hauexek dira: liburutegiak, museoak, agiritegiak, kultur ondarea, antzerkia, dantza, ikusizko artea, musika (fonografia barne), literatura —argitalpengintza— itzulpengintza, eskulangintza, ikus-entzunezkoak eta lurralde garapena. (Bertsolaritza Hizkuntza Politikatik kudeatzen da). Guztira 12 lantalde ari dira lanean, metodologia beraren arabera. Lantalde hauen plan operatiboak Osokora aurkezten dira aztertu eta martxan jartzeko.³

2.2 Nortasuna

Nortasuna sendotzeak esanahi ugari du gure artean. Esanahi horiek, batetik, jasotako ondareari eta beroni emandako gizarte-estimazioari lotuta daude, eta sortze kolektiboko prozesuan dagoen ondareari, bestetik; izan ere, bi ondare horiexek osatzen dute gaur egungo euskaldunen identifikazioa eta bereiztea.

Maila horretan, EAErako helburuetako batzuk honako hauek lirateke:

— Herritarren kultur aniztasuna eta kultur adierazpen desberdinak babestea.

— Euskarak produktu, zerbitzu eta komunikazioetan duen erabilera, lurraldeka eta orokorrean duen batez besteko soziolinguistikoaren arabe-rakoa izatea lortzea; izan ere horrela, kasu askotan, saihestu egingo da kultur jarduerak erabileren eta hizkuntza normalkuntzaren prozesuan dagoeneko badiren programen atzetik joatea, edo are okerrago dena, horientzat guztientzat oztopo izatea.

- Komunikabideetan:

- FMko emanaldietan euskal musikaren —instrumentala edo zeinahi hizkuntzatakoa— presentzia musika-programazio osoaren %10 izan dadin lortzea, FM digitalerako bidea erraztuz.

- Irratiko euskarazko emisioen ehuneak batez besteko soziolinguistikoetara hurbiltzea. Uhin zein baliabide digital bidezko telebisita lokalek/lurraldekoek ildo bereko konpromisoak beregana ditzaten lortzea, bai bere produkzioan bai euskarazko emanaldietan.

- Euskarazko prentsa edo artikuluen irakurketa-kuota hobetzea, urte batzuk barru % 10era helduz prentsaren irakurketa-mailari dagokionez.

- Kultur produktu eta zerbitzuetan:

- Eskaintzarako bermekin jarraitzea eta hobetzea, argitalpenetan, musika, antzerki edo zine ikuskizunetan, eta kultur sorkuntzan oro har eta bereziki euskaraz egiten direnean.

- Kultur, biblioteca, museo... zerbitzuek bere arretarako sistema hobetzea eta euskarazko arretarako eskubideari gero eta berme gehiago eskaintzen jarraituko dutela ziurtatzea.

2.3 Planaren 10 Ardatz Estrategikoetan 2007-2008rako proiektu traktoreak.

2004-2015 bitarteko Planean hamar ardatz estrategiko aurreikusi ziren. 2007-2008rako ondoko proiektu estrategikoetan ezarriko dira lehentasunak, besteak beste:

1. ARDATZA: KOORDINAZIOA INDARTU ETA ERAGIN

- ARTE ESZENIKOEN ZENTROA: Arte eszenikoen ikaskuntzarako goi mailako eskola bat egiteko proposamena egin eta onetsi, Hezkuntza sailarekin batera.

2. ARDATZA: KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA GARATU

- BEHATOKIA: 2007-2008-rako programa jarraituz Behatokiaren lana garatu. Euskal kulturaren marko estatistikoa martxan jarri.

3. ARDATZA: ZERGA ETA FINANTZAKETA POLITIKAK INDARTU

- ZERGARINKETEN ARAUBIDEA: Zerga-arinketek kultur inbertsioetan eduki dezaketen eragina aztertu, eta proposamenak egin.

4. ARDATZA: ONDAREAREN JARDUEREN GARAPEN NORMATIBOA ETA BERBIDERAKETA

- ARAUDIA: Euskadiko Agiritegien legea egin eta Gobernu mailan onetsarazi. Liburutegien legea onetsi eta martxan jarri. Museoen legea martxan jarri.

5. ARDATZA: ARTEAK INDARTU ETA SEKTOREEKIKO HARREMAN EREDUAK ERALDATU

- HITZARMENAK: Bide berriak elkarte estrategikoen egiturak indartu eta kudeaketa hobetzeko.

6. ARDATZA: EUSKAL KULTURAREN INDUSTRIA PROFESIONALIZATU ETA FINKAPENA INDARTU

- FM-ak: FMentzako araudia egin.
- HITZARMENAK: Bide berriak elkarte estrategikoen egiturak indartu eta kudeaketa hobetzeko.

7. ARDATZA: EUSKERAREN PRESENTZIA INDARTU EKOIZPENA ETA HEDAPENEAN.

- BIKOIZKETA ETA FILMEN ERAKUSKETA EUSKERAZ: DVDen bikoizketak gehitu eta euskarazko filmen erakusketa indartu.

8. ARDATZA. KULTURARA SARBIDEAK ERRAZTU

- KONTRATU PROGRAMA EITB-REKIN: EITB-rekin bigarren kontratu programa sinatu eta garatu.

9. ARDATZA: TEKNOLOGI BERRIEN SARRERA BULTZATU

- DIGITALIZAZIOA: Digitalizaziorako zentro koordinatzaile baten proposamena eta garapena landuko da..

10. ARDATZA: NAZIOARTEKO SAREAK ERATZEA BULTZATU

- ETXEPARE INSTITUTA GARATU: Euskal kultura zabaltzeko eta garatu Europar eta nazioartean.

Kulturaren Euskal Planean aurreikusitako jarduera-ildoak eta helburuak euskararen egoera hobetzeko baliagarriak izatea dute xede (bai corpusari bai estatusari begira). Izan ere, euskararen egoera hobetzea eta hizkuntzaren erabilera normaltzea euskal kulturaren gaineko jarduera ardatzen funtsezko elementuak dira, hurrengo atalean ikusiko dugunez.

2.4 Planaren 2005-2006ko epean egindako proiektu nagusiak eta planaren betetze-maila.

2005 eta 2006an KEPean hiru eremutik egin da lan bereziki: koordinazioa, profesionalizazioa eta egituraketatik. Zehaztasunak sarean daude eskuragarri, hemen nabarmenenak aipatuko dira soilik.

EGITURAKETA:

- Euskal Herriko Unibertsitatearekin kolaboratu da Ikuskizun Artei buruzko Masterraren diseinuan, 2007-2008 kurtsoan martxan jarri dena.
- Kulturaren Euskal Behatokian, kulturari buruzko informazio eta datuak eratzeke instrumentuak ezarri dira; hiritar guztien esku dagoen zerbitzua bat da, erakunde eta sektoreen elkarlana eta koordinazioan oinarritutakoa. Orain arte sektoreetan egin diren ikerketa lanak eskuragarri daude Behatokian.
- Museoen legea egin da eta Legebiltzarrak onetsi du eta Liburutegien legea gobernuan onetsi da dagoeneko.
- SAREA Antzerki-sarean erakundearteko partaidetza indartu eta osatu da.
- TDT lokalei buruzko dekretua argitaratu da, sektorearen erregulaziorako.
- Kultura arloko web orrien eguneratze eta hobetze lerro bati hasiera eman zaio, zerbitzu publiko gisa.
- Euskal Kulturaren nazioarteratzeko organo nagusia egin eta onartu da, Etxepare Euskal Institutua.
- Liburutegien 07-08 eperako Plan operatiboa egin da, sektore eta erakundearteko elkarlanean.

PROFESIONALIZAZIOA:


- Finantziazio lerro bat ezarri da ikus-entzunezko sorkuntzaren ekoizpenari, ikus-entzunezkoen sektorea bultzatuko duen lerro estrategiko gisa.
- Itzulpen eta kokapen teknologiak indartu dira, PESIrekin koordinatutako proiektuekin. Euskarazko software askea garatu da.
- Kultura Sailaren aurrekontua handitu da, programa desberdinen eguneratze eta indarketarako.

KOORDINAZIOA:

- Kulturaren Euskal Kontseilua eraberritu da eta bi urte hauetan erakundearteko Batzordeak lan erritmoa mantendu du. Kontseiluaren finkapen honek (kontsulta eta jarraipen lerroetan) eta Batzordearenak (lerro exekutiboan), erakundearteko koordinazioa indartu du eta sektorearekin harreman-guneak sendotu.

2007koo Apirilaren 25an Kulturaren Euskal Kontseiluko kideek Kulturaren Euskal Planaren 2006ko balantzea onetsi zuten. KEParen burutze maila (2006an) % 58,42 da, eta gainontzeko % 41,58a 2007-2008rako planifikatua dago. Betetze-maila hau ardazka hartuta era honetan geratzen da:

KEP-AREN GARAPEN MAILA ARDAZKA (2005-2006)



2.5 Kulturgintzan euskararen erabilera indartzea (7. ardatz estrategikoa). Egoera

Lerro estrategiko honetan nahikoa ondo egin da lan 2005-2006an, aurreko irudian agertzen denaren arabera, aurreikusitakoa %78an bete da. Bi erritmotan doaz proiektuak, ondo bete direnak eta indar gehiagorekin jarraitu beharrekoak:

Hobekuntza nabarmentzen da ondoko neurriotan: liburu, disko eta ikus-entzunezkoen koordinazioa ekoizpena sustatzeko neurrietan; euskaraz sortutako ekoizpenak sistematikoago baloratzen dira deialdietan kalitate-irizpideen arabera; bertsolaritza sektorea gero eta tinkoago ari da gune propioa zabaltzen; TDTen arautzean kuota eta euskararen sustatze-politikak ezarri dira; haur eta gazteei zuzentzen zaien euskarazko produktuak astiro baina zabaltzen doaz aukeretan; itzulpen teknologien eta ahotsaren sintesirako proiektuak aurrera doaz; kultur behatokiaren sorreraz euskara beste heldulekua lortzen ari da bilakaeren jarraipena egiteko.

Astiroago doazen neurriak eta 2007-2008an ere landuko direnak: katalogo kolektiboa garatu eta euskal bibliografia egitea, I+G+I sareetan parte hartzea; euskarazko software askearen erabilera sustatu eta zabal-

tzea; kultur-zerbitzuetan euskararen erabilera bermatzeko behar diren neurriak hartzea; itzulpengintza, bikoizketa eta azpтитuluen erabilera sustatzea; inmigrazioaren Euskal Planarekin adostutako neurriak sakonago garatzea.

3. ETORKIZUNARI BEGIRA EUSKARAZKO KULTURA POLITIKA SENDO GARATZEKO BIDEAN AGERTUKO DIREN FAKTORE KRITIKOAK.

Hirugarren atal hau osatzeko Plana bere osotasunean aztertu da, bai bere sasoian egin ziren AMIA azterketak, bai gerora indarrean jarri diren edo ez diren neurriak eta proiektuak. Hain plan zabalaren garapenerako etorkizunean gehien zaindu behar ditugun aldeak aurreikusten saiatzea da helburua. Aurreikuspena guztiz kualitatiboa eta pertsonala da, orain arteko ibilbidea kontuan hartuta bederatzi faktore kritiko dira guztira.

3.1. Ekimen publiko zentralak eta koordinatuak ziurtatzea, euskarazko edukiak sortu edo hedatzen dituzten sektoreak garatzeko; liburu, disko eta ikus-entzunezkoak ekoizteko eta hedatzeko dirulaguntzak arautzea eta horiek EITBren bidez sustatzea; kultur zerbitzu eta edukietara (liburutegiak, agiritegiak, Interneteko atariak, softwarea...) iristeko bide elebidunak antolatzea eta euskarazko fondoak digitalizatzea. Honen ondorioz kultura eta hizkuntza politika koordinatuagoak behar dira udalen, aldundien eta Jaurlaritzaren mailan. Sektoreetan kulturaren sortzaile eta ekoizle euskaldunen presentzia sendotzen joan behar da, datozen sortzaile euskaldun gazteen ohitura-aldaketak ahalbidetzeko.

3.2. Hezkuntzan ondare, arte eta kultur industrietarako irakaskuntza aratuak eta arautu gabeak garatzen joatea. Arte Eszenikoen Goi-Mailako Zentroaren bidetik beste irakaskuntzak ere hurrenez hurren kudeatzeak eragina izango du datozen urteetan, euskarari ekar dakioken altxorraz.

3.3. Arte eta Kultur Industrien Institutuaren beharra. Dagoeneko diseinu aldian dagoen proiektu honek Kultura Politikaren garapenean erakunde hurbilago eta tresnen aldetik malguagoa ekarriko du. Kulturaren euskarazko kalitatezko proiektuak bultzatzeko lerroa nabarmen finkatu-ko luke era honetako Institutuak.

3.4. Kulturari buruzko informazio sistemak garatzea. Kulturaren Euskal Behatokiaren sorrerak elementu erreferentzial berria jarri du kulturgingitzaren joko-zelaian. Datozen urteetako ibilbidean informazioa sistema eguneratu, azkarra eta zabaldua sortzeaz gain jarraipenerako tresna ere bihurtzea lortu behar da, euskararen jarraipena barne.

3.5. Euskal kulturaren arlo guztietan (ondarea, artea eta industria) euskarazko kalitateko edukiak sustatu beharra. Urtero-urtero euskarazko zinema eta telefilmak sortu behar dira; bai zinerako bai telebistarako filmak bikoiztu behar dira euskaraz, gutxiengo eskaintza ziurtatuz zinemalekuetan euskarazko filmak etengabe emateko; arlo bakoitzean euskarazko sorkuntza eta doikuntza erraztu behar dira (testuak, soinuak eta irudiak), eta horiek kultura digitalaren formatuetara aldatu behar dira.

3.6. Bertoko merkatuan bai kanpokoan euskarazko euskal kultura sustatzeko neurrien sendotze-mailari eustea. Barrura begira, irakurketa edo kultur zerbitzuen erabilera sustatu behar da, edo irrati eta telebistarako musika eta ekoizpena hedatzeko kuota batzuk ziurtatu behar dira, edo telebista publikoan datozen kate berrietan programa tematikoak sortuz. **Kanpora begira,** kulturarekin zerikusia duten teknologiak eta edukiak eskuz aldatzea edo nazioartean zabaltzea ziurtatzea.

3.7. Sormena, balio-katearen alderik ahulena bereziki zaindu beharra. Sormena bultzatzeko neurri zuzenak (baliabideak ezartzea) eta zeharkakoak (sortzaileen laneko baldintzak, legeak eta alderdi fiskalak) lantzea etorriko da datozen urteetan. Euskarak bere sormen gune propioak behar ditu, Anjel Lertxundiren hitzen bidetik, eremu libre eta eremu konpartitu horien ildotik, euskaraz sortzeak euskarazko balio katea tinkoa bermatuko du.

3.8. Kultura laguntzeko formula berriek aztertzen jarraitzea. Gai honen jarraipen estua egin behar da datozen urteetan, formula hauek oso modu bizkorrean aldatzen hasi direlako, bai barnetik, bai testuinguru zabalagoetatik.■

OHARRAK

1. Kulturaren Euskal Kontseilua, <http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-6513/es/>
2. Kulturaren Euskal Plana, <http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-6513/es/>
3. Kulturaren Euskal Behatokiak, <http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19130/es/>